

ITSASOKO ERREGIMEN BEREZIKO LANGABEZIA-SOROSPENA



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA



ITSASOKO GIZARTE INSTITUTA



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES


SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Zertan datza langabezia-sorospenak?	3
Langabezia-sorospen motak	3
Zer baldintza bete behar dira?	4
Errentarik eza eta familia-erantzukizunak	6
Iraupena eta zenbatekoa	7
Noiz eskatu behar dut sorospena?	9
Non aurkeztu behar dut eskaera?	9
Sorospenaren bateragarritasuna/bateraezintasuna	10
Egitate eragilea	11
Sorospena etetea, berriz ezartzea eta azkentzea	12
Enpleguari laguntzeko osagarria (EAE)	15
Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia zuzendaritzak	17
Araudia	18



SARRERA

Langabezia-laguntzaren maila sinplifikatzeko eta hobetzeko, langabezia-sorospenaren araudia aldatzen da presako neurriak hartzen dituen maiatzaren 21eko 2/2024 Errege Lege Dekretuaren bidez.

Erreformaren helburua da sistemaren funtzionamendua sinplifikatzea eta haren helburuak egokitzea, argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa emateko eta kudeaketa errazteko, bereziki zaurgarritasun-maila handiena eta enplegarritasun-baldintza okerrean dituzten kolektiboak dagokienez.



ZERTAN DATZA LANGABEZIA-SOROSPENAK?

Langabezia-sorospenak ordaindutakoaren arabera langabezia-prestazioa agortu duten pertsonak edo kotizazio nahikorik ez izateagatik prestazio hori jaso ezin duten pertsonak babesten ditu, baita, nolanahi ere, premia- eta kalteberatasun-egoeran daudenak ere.

LANGABEZIA-SOROSPEN MOTAK

Hauek dira langabezia-sorospen motak:

- 1.** Langabezia-prestazioa amaitzeagatik langabezia-sorospena.
- 2.** Langabezia-prestazioa lortzeko gutxieneko kotizazio-aldia ez betetzeagatik langabezia-sorospena.
- 3.** 52 urte baino gehiagokoen langabezia-sorospena.
- 4.** Itzulitako emigratzaileen langabezia-sorospena.
- 5.** Genero- edo sexu-indarkeriaren biktimen langabezia-sorospena.

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA?

Langabezia- prestazioa amaitzeagatiko langabezia- sorospena

1. Langabezia-prestazioa agortu izana. Familia-erantzukizunak ez dituzten 45 urtetik beherakoen kasuan, agortutako langabezia-prestazioak 360 eguneko edo gehiagoko iraupena izan behar du.
2. Errentarik ez izatea edo, bestela, familia-erantzukizunak daudela frogatzea.
3. Enplegu-eskatzaille gisa izena ematea.
4. Jarduera-akordioa sinatzea.

Langabezia- prestazioa lortzeko gutxieneko kotizazio- aldia ez betetzeagatiko sorospena

1. Legezko langabezia-egoeran egotea.
2. Gutxienez 90 eguneko kotizazioa izatea.
3. Errentarik ez izatea edo, bestela, familia-erantzukizunak daudela frogatzea.
4. Enplegu-eskatzaille gisa izena ematea.
5. Jarduera-akordioa sinatzea.

52 urte baino gehiagokoen langabezia- sorospena

1. 52 urte baino gehiago izatea eta aurreko bi egoeretako batean egotea.
2. Ordaindutakoaren arabera erretiroa hartzeko baldintza guztiak betetzea, adina izan ezik.
3. Espainian gutxienez 6 urtez kotizatu izana langabeziagatik.
4. Errenta propiorik ez izatea.
5. Enplegu-eskatzaille gisa izena ematea.
6. Jarduera-akordioa sinatzea.



Itzulitako emigratzaileentzako sorospena

1. Langabezian egotea eta kontribuzio-mailako langabezia-prestaziorako eskubiderik ez izatea.
2. Enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
3. Jarduera-akordioa sinatzea.
4. Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko herrialdeetatik edo langabeziari buruzko hitzarmenik ez duten herrialdeetatik itzuli izana.
5. Aurreko herrialdeetan gutxienez 12 hilabetez lan egin izana azken 6 urteetan, Espainiatik azken aldiz irten zenetik.
6. Emigrazio-herrialdean langabezia-sorospenik jaso ez izana.
7. Errentarik ez izatea.

Genero- edo sexu- indarkeriaren biktimen langabezia- sorospena

1. Kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea.
2. Gizarteratzeko Errenta Aktiboa 3 aldiz jaso ez izana.
3. Enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
4. Jarduera-akordioa sinatzea.
5. Errenta propiorik ez izatea, salbu eta ezkontidea, izatezko bikotekidea edo 26 urtetik beherako edo desgaitasuna duen adin nagusiko seme-alabak baditu, edo adopziorako edo harrerarako harreran edo zaintzan hartutako adingabeak baditu; kasu horretan, familia-erantzukizunen baldintza bete beharko da.



ERRENTARIK EZA ETA FAMILIA-ERANTZUKIZUNAK

Baldintza horiek betetzat joko dira honako kasu hauetan:

Errentarik ez izatea

Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) % 75etik beherako errenta propioak, aparteko ordainsaririk gabe, honako hauen aurreko hilabete naturalean:

1. Hasierako alta-eskaera.
2. Luzapen-eskaera.
3. Berrekite-eskaera.

Familia-erantzukizunak

Familia-unitatearen errentak LGSaren % 75etik beherakoak izatea, aparteko ordainsaririk gabe, hilabete natural honen aurrekoan:

1. Hasierako alta-eskaera.
2. Luzapen-eskaera.
3. Berrekite-eskaera.

Familia-unitatetzat hartuko da, baldin eta ekonomikoki eskatzailearekin edo onuradunarekin bizi badira edo haren mende badaude, eta honako hauek osatzen badute:

1. Eskatzailea edo onuraduna.
2. Ezkontidea/Izatezko bikotea.
3. 26 urtetik beherako edo desgaitasuna duten adin nagusiko seme-alabak.
4. Adopziorako edo harrerarako hartutako edo zaintzapeko adingabeak.

IRAUPENA ETA ZENBATEKOA

1. LANGABEZIA-PRESTAZIOA AMAITZEAGATIKO LANGABEZIA-SOROSPENA:

Iraupena			
Familia-erantzukizunen akreditazioa	Adina, prestazioa agortzen den egunean	Agortutako langabezia-prestazioaren iraupena	Sorospenaren gehieneko iraupena
Ez	<45	>= 360 egun	6 hilabete
	>45	>= 120 egun	
Bai	Berdin dio	>= 120 egun	24 hilabete
		>=180 egun	30 hilabete

Zenbatekoa		
180. egunera arte	180-360 egunean	361. egunetik aurrera
OAEAP*aren % 95a	OAEAParen % 90a	OAEAParen % 80a

*Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa (OAEAP).

2. LANGABEZIA-PRESTAZIOA LORTZEKO GUTXIENEO KOTIZAZIO-ALDIA EZ BETETZERAGATIKO LANGABEZIA-SOROSPENA:

Iraupena		
Kotizatutako gutxieneko okupazio-aldia	Familia-erantzukizunen akreditazioa	Sorospenaren gehieneko iraupena subsidio
90 egun	Ez	3 hilabete
120 egun	Ez	4 hilabete
150 egun	Ez	5 hilabete
180 egun	Ez	6 hilabete
	Bai	21 hilabete

Zenbatekoa		
180. egunera arte	180–360 egunean	361. egunetik aurrera
OAEAParen % 95a	OAEAParen % 90a	OAEAParen % 80a

3. 52 URTETIK GORAKOENTZAKO LANGABEZIA-SOROSPENA:

Iraupena
Erretiro-adin arrunta izatea erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak (COE) aplikatuta
Zenbatekoa
OAEAParen % 80a

4. ITZULITAKO EMIGRATZAILEENTZAKO LANGABEZIA-SOROSPENA:

Iraupena		
18 hilabete		
Zenbatekoa		
180. egunera arte	180–360 egunean	361. egunetik aurrera
OAEAParen % 95a	OAEAParen % 90a	OAEAParen % 80a

5. GENERO- ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO LANGABEZIA-SOROSPENA:

Iraupena		
Arau orokorra	1 GEA*ren onuraduna izan bada	2 GEAREN onuraduna izan bada
30 hilabete	20 hilabete	10 hilabete
Zenbatekoa		
180. egunera arte	180–360 egunean	361. egunetik aurrera
OAEAParen % 95a	OAEAParen % 90a	OAEAParen % 80a

*Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (GEA)

NOIZ ESKATU BEHAR DUT SOROSPENA?

Langabezia-sorospenerako eskubidea gertaera eragilearen hurrengo egunetik aurrera sortuko da, baldin eta gertaera horren ondorengo hamabost egun baliodunetan eskatzen bada.

Epe horretatik kanpo eta gertaera eragilearen dataren ondorengo sei hilabeteetan eskatzen bada, eskubidea eskaera aurkezten den egunean sortuko da.

Langabezia-sorospena sei hilabete igaro ondoren eskatzen bada (gertaera eragilearen datatik zenbatzen hasita), eskaera ukatu egingo da, salbu eta epe horren azken egunean eskatzailea norberaren edo besteren konturako lanak egiten ari bada, edo aldi baterako ezintasunagatik edo adingabearen jaiotza eta zaintzagatik prestazioa jasoz gero; kasu horretan, eskaera egiteko epea lana amaitu edo prestazioa azkendu eta hurrengo hamabost egun baliodunetara arte luzatuko da.

NON AURKEZTU BEHAR DUT ESKAERA?

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Itsasoko Gizarte Institutuaren (IGI) bulegoetan, edo Erregistro Elektronikoaren edo Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoaren bidez: <https://sede.seg-social.gob.es>. Zerbitzu honetan sartzeko, ziurtagiri elektronikoa edo CI@ve iraunkorra eduki behar duzu. Gainera, eskabide-ereduak dituzu eskuragarri Egoitza Elektronikoan eta Gizarte Segurantzaren webgunean.

Era berean, eskuragarri duzu «IGI zure poltsikoan» mugikorrerako aplikazioa. Bertan sartzeko, CI@ve, ziurtagiri digitala edo SMS sistema erabili ditzakezu.

IGIk langabezia-sorospenerako eskubidea aitortzen edo ukatzen duen ebazpen arrazoitua emango du, eskaera garaiz eta behar bezala egin eta hurrengo 15 eguneko epean.

Langabezia-prestazioa edo -sorospena hogeita hamar eguneko hilekoetan ordainduko da, sortzapena gertatu eta hurrengo hilabetearen barruan. Dena dela, hileroko bakoitza jasotzeko eskubidea dagokion mugaegunetik urtebetera iraungiko da.

Sorospena ordaintzeko, eskatzaileak adierazitako finantza-erakunde laguntzailearen kontuan egin beharko da ordainketa.

SOROSPENAREN BATERAGARRITASUNA/ BATERAEZINTASUNA

Bateragarritasuna

1. Gutxieneko edozein errenta, gizarte-soldata edo edozein administrazio publikok emandako gizarte-laguntzako antzeko laguntzak jasotzearekin.
2. Gizarte Segurantzaren ekarpenik gabeko prestazio ekonomikoak jasotzearekin, erretiro-prestazioa izan ezik.
3. LHko programetan edo laneko prestakuntza-programetan sartutako kanpoko prestakuntza-praktikak edo praktika akademikoak egitearekin.
4. Besteren konturako lanarekin, lanaldi osoan edo partzialean, Enpleguari Laguntzeko Osagarri gisa (EAE).

Bateraezintasuna

1. Norberaren konturako lanarekin, nahiz eta horretan aritzeak Gizarte Segurantzaren erregimenetako batean edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren ordezkko gizarte-aurreikuspeneko mutualitatearen batean nahitaez sartzea ez ekarri.
2. Oro har, Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko prestazio ekonomikoak lortzearekin, salbu eta prestazio horiek bateragarriak izan badira prestazioa edo sorospena eragin zuen lanarekin.



EGITATE ERAGILEA

Amaitzeagatik sorospena	Ekarpenezko prestazioa agortu deneko data.
Gutxiegi kotizatzeagatik sorospena	Legezko azken langabezia-egoera.
52 urtetik gorakoentzako sorospena	1. 52 urte izatea eta aurreko bi egoeretako batean egotea barne hartzen dituen data. 2. 52 urte betetzen diren data, baldin eta, sartzeko baldintza guztiak betetzen diren, aurreko bi egoeretako batean dauden egunean 52 urte izan ezik, enplegu-eskatzaile gisa etengabe inskribatuta egon badira.
Itzulitako emigratzaileen sorospena	Pertsona bere bizilekua finkatzeko Espainiara itzultzen den data.
Genero- edo sexu- indarkeriaren biktimentzako sorospena	Genero- edo sexu-indarkeriaren biktimaren akreditazioa ematen den eguna, edo interesdunari dagokion epai edo ebazpen judiziala jakinarazten zaion eguna.



SOROSPENA ETETEA, BERRIZ EZARTZEA ETA AZKENTZEA

1. LANGABEZIA-PRESTAZIOA AMAITZEAGATIKO LANGABEZIA-SOROSPENA, LANGABEZIA-PRESTAZIOA LORTZEKO GUTXIENEO KOTIZAZIO-ALDIA EZ BETETZEAGATIKO LANGABEZIA-SOROSPENA, ITZULITAKO EMIGRATZAILEEN LANGABEZIA-SOROSPENA ETA GENERO- ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEN LANGABEZIA-SOROSPENA:

1.1. Etetea:

- A)** Arau-hauste arin eta astunen ondoriozko zehapena ezartzeagatik dagokion aldian.
- B)** Jaiotza, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera egoerak irauten duen bitartean.
- C)** Eskubidearen titularra askatasun gabetzea dakarren kondena betetzen ari den bitartean.
- D)** Eskubidearen titularrak besteren konturako lana egiten duen bitartean (lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa), eta horrek 12 hilabete baino gutxiago irauten duenean, salbu eta EAE gisa bateragarritasuna duela aitortu den kasuetan, edo eskubidearen titularrak norberaren konturako 60 hilabetetik beherako lan bat egiten duen bitartean, Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Araubide Berezian alta ematen duten norberaren konturako langileen kasuan, edo 24 hilabetera, gizarte-aurreikuspeneko mutualitatearen batean alta emanda dauden jardueren kasuan.
- E)** Errekurtsoa izapidetzeko prozeduretan langileak zerbitzuak ematen jarraitzen duen bitartean edo enpresaburuaren borondatez ematen ez dituen bitartean.
- F)** Bizilekua atzerrira aldatzen den kasuetan, onuradunak adierazten badu lana bilatzeko, lan egiteko, lanbide-hobekuntzarako edo nazioarteko lankidetzarako dela, 12 hilabete jarraitu baino epe laburrakorako, betiere atzerrira irtetea aldeztu aurretik jakinarazita eta IGik baimenduta badago.
- G)** Urte natural bakoitzean, gehienez ere 90 egun naturaleko egonaldia egiten bada atzerrian (jarraian edo ez), betiere atzerrira joan dela aldeztu aurretik jakinarazita eta IGik baimenduta. Ez da egonalditzat edo egoitza-aldaketatzat hartuko urtean behin bakarrik atzerrira joatea 30 egun natural baino gehiagorako.
- H)** Langabezia-prestazioen onuradunek ez badute betetzen IGik Langile Autonomoen Araubide Berezian eskatzen dizkien dokumentuak ezarritako epeetan aurkezteko betebeharra.
- I)** Onuradunak enplegu-zerbitzu publiko eskudunean enplegu-eskatzailerik gisa izena

emanda ez dauden aldietan, salbu eta besteren kontura lanaldi osoan lanean ari badira eta prestazioa edo sorospena EAE gisa bateragarri egiten ari badira.

J) Jarduera-akordioa betetzen ez den edo eteten den aldietan.

K) IGik detektatzen duenean prestazioen onuradunek ekitaldi fiskal batean ez zutela bete PFEZaren aitortpena aurkezteko betebeharra.

L) Lanean berriz hasteko deituak diren aldizkako langile finkoak beren lanpostura itzultzen ez direnean, arrazoi justifikaturen bat izan ezean.

1.2. Berriz ezartzea:

A) Baldin eta, sorospena etetea ekarri zuen egoera amaitzen den egunean, interesdunak ez badu betetzen errenta-gabeziaren edo familia-erantzukizunen baldintza. Hori betetzen duenean, berriz ezartzeko eskatu ahal izango du, betiere eskaera hori etetearen arrazoiak amaitu eta hurrengo 6 hilabeteen barruan aurkezten bada.

Kasu horretan, berriz ezartzeak ondorioak izango ditu eskaera egiten den egunetik aurrera, kontsumitutako egunik gabe.

B) Sorospena aitortzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituen eskaera hura etetea eragin zuen berariazko egoera amaitu eta hurrengo 6 hilabeteko epetik kanpo aurkezten bada, ez da sorospena berriz ezarriko, salbu eta eskatzailea besteren edo norberaren konturako lanak egiten ari bada; kasu horretan, eskaera egiteko epea lana amaitu eta hurrengo 15 egun baliodunetara luzatuko da.


1.3. Azkentzea:

A) Sorospenaren iraupen-epea agortzea.

B) Zehapena ezartzea.

C) Besteren konturako lan bat egitea, 12 hilabetekoa edo luzeagoa, edo norberaren konturako lan bat egitea, 60 hilabete edo gehiagoz, Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Araubide Berezian alta ematen duten norberaren konturako langileen kasuan, edo 24 hilabetez, Langile Autonomoen Araubide Berezian ordezko gizarte-aurreikuspeneko mutualitatearen batean alta emanda dauden jardueren kasuan.

D) Eskubidearen titularrak ekarpeneko erretiro-pentsiorako eskubidea sortzeko kasu bakoitzean eskatzen den ohiko adina betetzea, salbu eta langileak horretarako eskatzen den kotizazio-aldia egiaztatuta ez badauka edo kontratua eteteko edo lanaldia murrizteko kasuak badira.



E) Erretiro-pentsioa edo ezintasun iraunkorragatik pentsioa jasotzea, ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia. Onuradunak prestazio mesedegarriena aukeratu ahal izango du.

F) Bizilekua edo egonaldia atzerrira aldatzea, sorospena eteteko arrazoi diren kasuetan izan ezik.

G) Eskubideari borondatez uko egitea.

2. URTETIK GORAKOENTZAKO LANGABEZIA-SOROSPENA:

2.1. Etetea:

A) Gainerako sorospenak eteteko arrazoi berberengatik.

B) Eskubidea sortu zenetik edo azkenekoz horri berriz ekin zenetik 12 hilabete igarotakoan, interesdunak ez badu urteko errenta-aitorpena aurkeztu.

C) Errenta propiorik ez izatearen baldintza betetzeari uzten zaion egunean, ez-betetze horrek 12 hilabete baino gutxiago irauten badu.

2.2. Berriz ezartzea:

A) Aurreko b) kasuan, berriz ekingo zaio eskubideari, hura berriz ezartzeko eskaera egiten den egunetik aurrera, betekizunak betetzen jarraitzen dela egiaztatzen duen urteko errenta-aitorpena aurkeztuta.

B) Aurreko c) kasuan, eskubideari berriro ekingo zaio errenta-gabeziaren baldintza betetzen den egunetik aurrera. Kasu horretan, prestazioa berriz jasotzen hasteko eskaera betebeharrak hori bete eta hurrengo 15 egun balioduneko epean aurkeztuko da. Osterantzean, sorospena berriz ezarriko da horren eskaera egiten den egunetik aurrera.

Bidezkoa izango da eskatutako berrabiarazpena ukatzea, sorospena etetearen ondorio-datatik 12 hilabete igaro ondoren.

2.3. Azkentzea:

A) Langabezia-prestazioa amaitzeagatik langabezia-sorospena eta langabezia-prestazioa lortzeko gutxieneko kotizazio-aldia ez izateagatik amaitutako langabezia-sorospena azkentzeko arrazoi berberengatik.

B) Errenta-gabeziaren baldintza 12 hilabetez edo gehiagoz ez betetzeagatik.

C) Etenaldiaren ondorio-datatik 12 hilabete igarotzeagatik, horri berriro ekin gabe.

ENPLEGUARI LAGUNTZEKO OSAGARRIA (EAE)

1. Kontzeptua:

Lanaldi partzialeko kontratu bati edo gehiagori eutsiz langabezia-sorospena lortzen dutenentzat pentsatutako osagarria da, baita sorospenaren onuradun izanik lanaldi osoko edo partzialeko lan-harremana hasten dutenentzat ere.

Langabezia-sorospena EAE gisa bateragarri egingo da.

Ekarpen prestazioa amaitzeagatik langabezia-sorospenei aplikatzen zaie (ekarpenerako kotizazio nahikorik ez izateagatik), bai eta 52 urtetik gorakoei ere. 2025eko ekainaren 1etik aurrera, itzulitako emigratzaileen sorospenari eta genero- edo sexu-indarkeriaren biktimen sorospenari ere aplikatuko zaie.

2. Zenbatekoa:

Hiruhileko bakoitzean zehaztuko da, eta horretarako kontuan hartuko dira bateragarritasunaren hasieran itundutako lanaldia eta EAEko hartzailea une bakoitzean dagoen hiruhilekoko lanaldia langabezia-sorospenaren hasierari dagokionez, taula honen arabera:

Hartzailea dagoen hiruhilekoa langabezia-sorospenaren hasierari dagokionez	EAE. Lanaldi osoko enplegua (% OAEAP)	EAE. Lanaldi partzialeko enplegua lanaldiaren $\geq$ % 75 (% OAEAP)	EAE. Lanaldi partzialeko enplegua lanaldiaren $<$ % 75 eta $\geq$ % 50 (% OAEAP)	EAE. Lanaldi partzialeko enplegua lanaldiaren $<$ % 50 (% OAEAP)
1. hiruhilabetea	80	75	70	60
2. hiruhilabetea	60	50	45	40
3. hiruhilabetea	40	35	30	25
4. hiruhilabetea	30	25	20	15
5. hiruhilabetea	20	15	10	5

3. Iraupena:

EAEa hura sortu zuen lan-harremanak irauten duen bitartean jasoko da. Hori jasotzen den bitartean (aplikatutako ehunekoa edozein dela ere), langabezia-sorospenaren iraupeneko egun guztiak kontsumituko dira, EAEn kontzeptu gisa jasotako egunak adina.

Iraupena gehienez 180 egunekoa izango da, eta bateragarritasun-aldi batean edo gehiagotan jaso ahal izango dira, aitortutako sorospenaren gehieneko iraupenetik jasotzeko geratzen den egun-kopuruaren mugarekin.

4. Etetea:

Lan-harremana azkentzen edo eteten bada, edo EAEa eragin duen jarraitasunik gabeko jarduera finko eteten bada, onuradunak IGIri jakinarazi beharko dio 15 egun balioduneko epean, eta horrek langabezia-sorospena etetea eragingo du. Sorospen hori bateragarritasunik gabe berrabiarazi ahal izango da, interesdunak aldeztu aurretik eskatzen badu, eta betiere honako hauek frogatzen badira:

- Legezko langabezia-egoera.
- Enplegu-eskatzaile gisa izena ematea.
- Errenta-gabeziaren edo familia-erantzukizunen baldintzak.

Hala ere, lan-harreman hori azkentzen edo eteten den egunean, edo jarduera eteten den egunean, beste bati eusten bazaio, EAEa jasotzen jarraitu ahal izango du, zenbatekoa egokitu ondoren, itundutako lanaldi arrunta eta aldaketa indarrean jartzen den unean sorospena dagoen hiruhilekoa kontuan hartuta.

5. Bateriaezintasuna:

Ezin izango dira sorospena eta besteren konturako enplegua bateragarri egin, kontratazioa honako hauek egiten dutenean:

- Kontratazioaren unean enplegu-erregulazioko espedientean dauden enpresak.
- Sorospenaren onuradun den langabeak azken 12 hilabeteetan lan egin duen enpresak.
- ABEE edo SARE MEKANISMOAREN ondorioz etendako lan-harremanak.
- Enpresaburuaren ezkontideari, aurrekoei, ondorengoei eta odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko gainerako senideei eragiten dieten kontratazioak, edo, hala badagokio, adopzioagatik, 2. mailara artekoak (hori barne), edo zuzendaritza-karguak dituztenen edo sozietateen forma juridikoa duten erakundeetako edo enpresetako administrazio-organoetako kideen senideei eragiten dietenak, bai eta azken horiekin egiten direnak ere.

Itsasoko Gizarte Institutuaren PROBINTZIA ZUZENDARITZAK

Helbidea		P.-K.	Herria	TEL.	Helbide elektronikoa
A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00	acoruna.dirprov.ism@seg-social.es
ALICANTE	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alicante/Alacant	96 512 65 23	alicante.dirprov.ism@seg-social.es
ALMERIA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almería	95 062 02 11	almeria.dirprov.ism@seg-social.es
BARCELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Barcelona	93 443 96 00	barcelona.dirprov.ism@seg-social.es
BIZKAIA	C/ Virgen de Begoña, 32	48006	Bilbao	94 473 90 00	bizkaia.dirprov.ism@seg-social.es
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 03	cadiz.dirprov.ism@seg-social.es
CANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00	santander.dirprov.ism@seg-social.es
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50	cartagena.dirprov.ism@seg-social.es
CASTELLÓN	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Castellón de la Plana/ Castelló de la Plana	96 428 30 72	castellon.dirprov.ism@seg-social.es
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40	ceuta.dirprov.ism@seg-social.es
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00	gijon.dirprov.ism@seg-social.es
GIPÚZKOA	C/ Hermanos Otamendi, 13	20014	Donostia – San Sebastián	94 348 32 00	gipuzkoa.dirprov.ism@seg-social.es
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11	huelva.dirprov.ism@seg-social.es
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06	illesbalears.dirprov.ism@seg-social.es
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas de Gran Canaria	92 849 46 45	laspalmas.dirprov.ism@seg-social.es
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 – bajo	27002	Lugo	98 222 50 10	lugo.dirprov.ism@seg-social.es
MADRID	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00	madrid.dirprov.ism@seg-social.es
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 195 57 45	malaga.dirprov.ism@seg-social.es
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00	melilla.dirprov.ism@seg-social.es
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28	sevilla.dirprov.ism@seg-social.es
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00	tarragona.dirprov.ism@seg-social.es
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Sta. Cruz de Tenerife	92 259 89 00	tenerife.dirprov.ism@seg-social.es
VALENCIA	Av. del Port, 300	46024	Valencia	96 335 99 00	valencia.dirprov.ism@seg-social.es
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00	vigo.dirprov.ism@seg-social.es
VILAGARCIA	Avda. de la Marina, 23	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00	vilagarcia.dirprov.ism@seg-social.es

ARAUDIA

- Urriaren 21eko 47/2015 Legea, itsasoko eta arrantzako sektoreko langileen gizarte-babesa arautzen duena.
- Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena.
- Maiatzaren 21eko 2/2024 Errege Lege Dekretua, langabezia-babesaren laguntza-maila sinplifikatzeko eta hobetzeko prestazio neurriak ezartzen dituena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1158 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko (2019/1158 Zuzentaraua, 2019ko ekainaren 20koa, gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta lanbide-bizitza bateragarri egiteari buruzkoa eta Kontseiluaren 2010/18/EB Zuzentaraua indargabetzen duena).





ITSASOKO GIZARTE INSTITUTA

INFORMAZIO GEHIAGO

Web-orria: Egoitza elektronikoa:



IGI zure poltsikoan:



INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren argitalpen-programan sartutako argitalpena (azaroaren 20ko 829/2023 Errege Dekretua)

Argitalpen honetan paper ekologikoa erabili da, kontratazio publikoko ingurumen-irizpideekin bat etorriz.

<https://cpage.mpr.gob.es>



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA